

## INKULTURAPENA

(Oar batzuk)

### 1. Zer dan

Izkuntza erromanikoetan erabilten dan berbea (gazteleraz «inculturación») biurtzeko, euskeraz berba barri au erabilten da iñoz. Ez da ain egokia. Latinetiko «in» aurrizki orrek, ezezko esanaia be badaukan ezkeru, naastea sortzen dau eta. «Inkultura» eta «inkulturapenaren» arteko naastea. Bigarren onen esangurea barru-kulturatzea da. Giza kultura bateko biurtzea. Bertakotzea. Pentsa-sentikeraz bertakotzea. Barne-kulturatu personea naiz dotriñea egin leiteke. Latinezko «incarnatio» itzaren parekoa da, paraleloa: «incarnatio» kulturala, gizatze kulturala, beste kultura baten gizatzea.

Idea eta eginkizun au gizarteko beste erreahidadeai be badagokie, baina orain emen Eleizaren inkulturapenaz diardugu, kristau fedearen inkulturapenaz. Beraz, orain aipaturiko idea generalari jarrai, kristau fedea kultura baxotxean bertakotzea dogu gogoan, lekuan lekuko biurtzea. Asikeratik ikusten da arazoren bat izan leitekela eginkizun orretan: kristau fedea Jaungoikoa-gandik datorren ezkeru, eta bere egia iragarten dauan ezkeru, zer esan gura ete dau bere inkulturapenak, zelan bertakotu leiteke leku baxotxean?

## 2. Kristau fedez berez inkulturatzekoa

Lenengotan, azaletik bakarrik ikusita, pentsa lei inkulturapenaren kontrakoa dala izakera au. Baiña barrurago begituz, ezek egitekotan, kristau fedea bai inkulturatu bear dauala ikusten dogu. Errez ikusten da, jakiña, kristau mundu fedea bera ez diran gauza guztiak berez itzi leitekezanak dirala eta itzi bearrekoak beste kulturetan gorputzean. Gaur ez dago ikusten ez dauanik, esate baterako, fede-iragarteak erriaren izkuntza errespetatu bear dauala eta ez mezularien izkuntza artu-azo. Teoriz beintzat olako gauzak gaur ez dira arazoak. Baiña orain gogoan dugun inkulturapenaz geiago esan gura dogu: fedea bera adierazten daben ideak eta gorputzen daben eginkizunak be inkulturatu egin bear dira, bertakotu. Nai ta, zeatzean bereiztea beti erreza izan ez, fedea altzoan daroen kulturaren eta kristau fedearen artean bereiztu egin bear da, eta au teoriz beintzat ez da gaur inon ukatzen. Eta onen arian au diñogu emen: fedea be rak kultura bakotxaren barrutik lez urten bear dauala (gero esango dogun zentzunean eta baldintzakaz).

Aurrera joan baño leenago, baten batek au be esan leike bearbada: Ekonomia errazoiagaitik eta beste kulturen prestigio eta erakarriagaitik izten da naiko sarritan norbere kultura (izkuntza, oiturak, izakera osoa). Eta bardin egin leitekela pentsa lei kristau fedea gaitik, edo beintzat kristau fedea merezi dauala beste orrenbeste beragaitik burutzea.

Errazoiketa onek ez dau balio, egi zatiren bat izan arren. Leenengo ta bein, beste giza onurakaitik norbere kultura (edo parte) itzi bearra zoritxarra da berez (ori egin bear izan dabe, esate baterako, irabazpideagaitik erbesteratuak). Edo beste kasu batzuetan, mailla bereko errealdade biren artean, eurentzako onuratsuen ta betegarriena aukeratu dabe. Onetan, beartua izatea eta norbere berezko eskubidezko izatearen kontra erabagi bearra da emen giza kontrakoa.

Kristau fedea ezin lei olakorik eskatu, edo kristau fedearen izenean ezin lei olakorik egitera beartu, berez. Bere: bere barruko izatez eta eskakizunez. Gizonen erruz bai, edo inoren

aparteko erru barik, ezjakiñez eta alanbearrez. Leenengoaren adibide bat askatasun-ezagaitik erbestera joan bear izan dabena dira; bigarrenaren kasua kristau fedeagaz batera au altzoan darran kultura artuazotea izan leiteke, olakorik erru barik jazo daretan. Baiña kristau fedeagaitik beste kultura bat artu bear au ain zuzen be kristau fedeak iñondik be eskatzen ez dauana da, eta berez kristau fedearen kontrako eskakizun eta indarkeria. Kristau fedea Jaungoikoaren gizonaganako maitasun berbea da, eta beraz salbamen osoaren berbea. Kristau fedearen esentzian bertan dago gizonaren salbamena izatea eta gizona bere osoan onartzea.

Kristautasunak berez kultura guztiak onartzen ditu, eta gizona bera galtzen dabena kultura orren alderdiak bakarrik zapuztu. Eta onartu be ez kultura orren ondoan kristau fedea be jartzen dala, kanpotik etorritako zerbait leenengoaren ondoan gertatzen dala. Ez: kristau fedea gizonagandik urtetan dauanaren onartzea da. Giza kulturak ez dabe euren izatea beste barik ukatu bear, ez konpotiko zerbait artu bear: euren barrutik be urtetan dauan fedea onartu baiño. Euren barrutik: eurak itxaroten izan dabena, euren barruak izen barik eskatzen izan dauana, euren betetasuntzat asmatzen dabena.

Jakiña kristautasuna edozein kulturatan *etorria* be dana: Jaungoikoagandik etorria, eta egitez beste kulturaren batetik be etorria (azken baten ebreatarrengatik; baiña gaur oneentzat be orain bi milla urtetako beste egoera batetik datorrena da). Baiña barrutik urtetan dauala esanez, gizonaren miuñari erantzuten dautsola esan nai dogu. Ez giza muin eskutu ta ezagun-ezari, kulturari (giza billaketaren desarroloan) gorpuztu ta izen barik agertzen danari baiño. Etorria da, «*Barri ona*» danez, baiña erri bakotxarena be bai, betidanik billatu dauana aurkitzea danez. Ez da beraz (ez dau izen bear) beste barik «*kanpoko*», «*erbesteko*», «*bestena*» eta orrela gurearen kontrako. Erbestetik be etortea okasiñoa da bakarrik, geure izatea aurkitu eta betetako.

### 3. Kulturak zabalik

Baiña diñogun au *zabalik* dagozan kulturakaz jazo leiteke

bakarrik, barriarentzat zabalik dagozan kulturakaz. Zarratuta dagozan eñean, barria kultura konkretu orren kontrakotzat agertuko da. Baiña giza kulturaren identitatea ezin leiteke barriarentzat guztiz zarratuta egotean jarri. Giza-izakera berez etorkizunari zabalik dago, gizonak, izan edo izatea adimenaren aurrean eukiz, izate oso ori menperatzen ez daualako. Barria, etorkizuna, guztiz ukatzea giza-izakerea bera ukatzea litzake.

Barria kultura beretik etorri leiteke, nai beste kultura bate-tik. Eta erlejiño arloan be beste kultura batzuetan jazoriko bizi-kizunak barri sortzaille betegarriak izan leitekez beste kulturen-tzat. Zentzu onetan, esan dogun lez, kanpotik dator, baiña ez norbere kulturagaz zerikusirik ez daukala.

Kulturaren ikutu-eziñaren izenean ez dira onartzen, esate baterako, diktadura ankerrak edo edozetariko giza-explotatzeak, nai ta bearbada «kultura» konkretu baten egitezko alderdiak istorikoak izan. Adibide onen bidez kulturea gizonaren lantzca eta zabaltzea dala gogoratu gura dot, eta barriarentzat zabalik egotea berezko dauala. Kulturak ez dira absolutoak eta ikuru eziñak.

Emen aporia edo bide-zarratu au aurkitu geinke: guztiz inkulturatzen bada (guztiz bertakotuz, bestetuz) ez dau ezer aldatzen; eta aurkitzen dauan kultura aldatzen badau, ez da naikorik inkulturatu. Oztopo onek inkulturatzea «barria» ukatzeraiño ulertzen dau. Baiña esan dogu barriari zabalik egotea berezkoa jakola giza kulturari (gizonari), eta autortu dogu kristau fedea barria dala, eta beraz kultura bategaz alkartzean aldaketa sortzen dauala («barria» danez). Giza kultura-egoera bat absolutizatu egin da eta «kanpotik» datorren guztia kultura orren areriotzat jo. Bide orretan ez legoke iñoz ezer artzerik: Ez arte ez jakintza ez teknika ez sendabidetza. Baiña personea da azken baten garrantzitsua, kulturak bere serbitzurako inguruak dirala, bere gizatasun eta askapen bidean. Eta erlejiño arloan be personak erabagiko dabe eskeintzen jakena betetasun jaken ala ez. Arazoa ez da kultura tradizionala ikutu barik gelditzen dan ala ez, egia (edo egi osoagoa) aurkitu dan ala ez baiño. Edozein kulturaren zentzuna eta esanaia ez da besterik eta.

Kristautasunean, absolutoa denez, badago berezko «zarratua» izate alderdia (eta emendik sortu dira, zoritxarreko errakuntzaz, dogmatismo gogor bortitzak istorian zear). Absoluto izatea Jaungoikoaren salbamenaren azken ziurtasun historikoa da, eta beraz, «zarratua» izateak Jaungoikoaren mugaeziña bera Kristogan istorikoki etorri jakula esan nai dau (beste era batzuetara be esan lei gauza berbera). Kristautasunaren esentzi onek ez dau istoriaren aldakuntza eta barria kentzen, eta berez ez dau beste erlegiñoen balioa be ukatzen. Baiña egia da absoluto izateak aparteko erleziñoa sortzen dauala beste kulturakaz erlegiño arloan. Ez dago beste guztien alboan soillik: unibersaltzat aurkezteten da.

Kristautasunak ezin leikio absoluto onen barri ona iragar-teari ukorik egin, bere burua ukatu barik. Baiña au egiaren eta maitasunaren indarrez burutu bear da, ez beste ezetarik saka-tzeaz. Egi ta maitasun onek ain zuzen be beste kulturen miuñe-ko billaketa, egarria eta egia identifikatzera eroan bear dau.

Bere absoluto izatea bere argi ta maitasunaren indarrean erakutsi bear dau. Orrela bakarrik artu daikee beste kulturak euren betetasuntzat. «Zarratua», absolutoa dalako. Eta absolutoa, azken betetasuntzat agertzen dalako (ez burrukaz, polemikaz ezarri ta artuazotekoa).

Inkulturapena lekuan lekuko giza izakerari egitea dan ez-kero, kristautasunak au lekuz eta aldiiz burutu bear dau. Gaurko gizonari erantzun bear dautsola diñogunean be, inkulturapen arazoa aipatzen dogu. Onezkero olako egokiera teoriz beintzat onartzen ez dauanik ez da izango. Baiña gero, egitez, ez jako teori orreri jarraitzen, edo teoriak ez dirala itzak baizen sakonak eta zabalak agertzen da. Erreza danik ez dot aditzen emon gura, ez dogmatikan, ez etikan nai beste pastoral arloetan. Arazoa ez da bakarrik, esate baterako, Asia Urrunekoentzat: gaurko gure gizartearentzat egokitzean be zailtasun bardiña aurkitzen dogu, nai ta geure gizartea izan eta kristau kultura barruan edo inguruan azi.

Istorian zear kristau izan ez diran urriñeko kulturetan, inkulturapena ez da leenengo laboratorioan gertatzen eta gero aplikatzen. Jakifia asikerako egokitze ori be aalik eta zabalén egin bear dana, baiña inkulturapén sakona kristau fedea artuaz batera kultura bakotxeko kristauak burutzekoa da, eta ez egun batetik bestera, luzaroan baiño. Mixiolariak ebanjelizatzen dabezan kulturen mentalidadea, eurena guztiz aaztuz, artzea ezinèzkoa da. Ori olan izan da beti. Baiña asikerako egokitze lana egin leikce, eta lekuan lekuko kultura ezagutu, errespetatu, maitatu; Barri Ona kultura orren betegarrizat azaldu; euren fedeadierazpideak billatzen adoretu eta lagundu.

#### 4. Partikularra ta unibersala

Gaur egunean mixiño kultura diferenteetan aparteko eraz daukagu partikularra eta unibersalaren arteko tinka. Beti izan da unibersaltasun jokerea kristau istorian, bere pentsamolde eta adierazpideetan (eta onek sarritan zurruntasun eta estuerarik gogorenara eroan dau). Baiña gaur bien arteko tensiñoa biziagoa dala konturatzen gara. Alderdi batetik, partikularren berezko eskubideak geroago ta obeto ikusten doguz; beste alde batetik, betiko unibersaltasunaren egokitasunez ganera, gaurko munduak unibersaltasunera dauan jokera ezin geinke aaztu. Esate baterako, sakramentuen arloan bai pastorgintzan eta bai dogmatikan be estuegi jokatu izan da sarritan orain arte. Jakifia da sakramentuen gaiak Mediterraneo inguruko kulturatik artutakoak dirala. Bizitzak berak eskeintzen dituen gaiak eta ikurrak edo sinboloak dira kutura orreetan, eta beraz sakramentu edo fedespresabide izateko egokiak. Baiña eskimalen bizitzatik bertatik ez dabe urteten orretariko gai batzuk, eta ez dira berez egoki euren fedearen espresabide izateko.

Alderdi onetatik, ez neuke eragozpenik ikusiko Elizeak zabaltsun aundiagoa erabiltean. Onetan be dogmatikak sarriegi (ia beti) txikiegia biurtu dau Jaungoikoa, eta bere grazia. Baiña, gero, gaur egunean ain zuzen be pastorgintzatik sortu leitekez eragozpenak: eskimalak be aipaturiko gaiak ezagutu eta aprezia-

tu leikeez euren eguneroko bizitzan, nai ta kanpotik etorritakoak izan, edo eskimalak be geroago ta geiago sartu leitekez beste lurralde ta kulturetako gizarteagazko artuemonetan. Beraz, zer dan egokiagoa (euren berezko ta tradiziñozko bizitzeak ala gaurko egoera aldakorrak eskatzen dauana) erabagitea ez da erreza. Gaurko unibersaltasun jokera eta egoera aldakor onetan, kristautasunaren inkulturapen erabagiak geienetan fedeburuasteak baiño prudentzi eta pastoralgintza-arazoak dira geiago. Zabaltasunik aundienaz jokatzeko eskubidea izanda be, anakronismoan jausteko arriskuaz konturatu bear dogu.

Dogmatika pentsamentuari buruz, kultura diferenteetako ulermen-eza aipatzen da. Esate baterako, kristau fedeak sartaldekoko istorian jantzi dituan dogmatika ideak ulerteziñak dirala Txinatarrentzat edo Afrikakoentzat. Au zeatzago ikusteko, erri arrunta eta ikasiak berciztu bear dira, leenengo ta bein. Esperientziak erakusten dau edozein kulturatako ikasleak bardin ulertzen dabezala (sartaldekoak baizen ondo, edo txarto) dogmatikako ideak eta sartaldekoko pentsalarien idea filosofikoak. Ulertze neutroan ez dago alderik, balorapenean baiño. Balorapena da diferentea, baiña balorapena da geuretzat be aldatutakoa. Idea batzuk onartu ezifñak agertzen dira, edo utsik, esanai barik, giza biotz eta gogoari ezer esateko barik. Eta fedeak berez billatzen dau idea barri esanaitzuetan konkretatzea. Baiña beti be, lenengo, Jaungoikoa txikiegi biurtu daben ideetatik askatu bear da.

*Luis Arostegi*